

TALAIAN

Europako Parlamentua antisozialagoa

Europako Parlamenturako hauteskundeak pasa dira. Orain boterea banatzeko ordua da. Lehen begiratuan badirudi eskuineko eta ultraeskuineko parlamentariak izango direla gehiengoa. Horien artean, ustelkeria barnean daramaten batzuek botere gehiago lortu dute. Nahiz eta neoliberalengandik oso urruti ez ibili, alderdi sozialista europarrek (sozialdemokraziaren adierazleek) boterea galdu dute. Eta ez dago haize berri eraginkor eraldatzailerik. Beraz, hemendik aurrera egingo diren politikak eta hartuko diren neurriak ez dira orain artekoak baino askoz diferenteagoak izango. Izatekotan, txarragoak. Antisozialak eta xenofoboak. Ikuspegi politikoari dagokionez, Europako Parlamentu berriak ez ditu Herrien interesak defendatuko Estatu handienak baizik. Azken horiek lehentasuna ematen diete euren interesei, Herri txikiaren ginetik. Gure Herriak arazo ekonomiko eta sektorialak zuzenean negoziatu ezinda segiko du. Frantzia eta Espainiako Estatuaren bidez egin beharko du.

Zeini balioko dio Europako Parlamentuak? Urte haue-tan, Bruselan, manifestazio ugari ikusi dugu; langileenak, arrantzaleenak, nekazarienak, siderurgia eta ontzigintzako langileenak, etorkinenak... 65 orduko asteko lanaldia proposatu ere proposatu zen. Parlamentuak erakutsi du merkatarien, Europa kapitalistaren eta antisozialaren zerbitzura dagoela. Kapitalismoaren kudeatzaileek milaka milioi gastatu dituzte beren lobbyek lan egin dezaten komisioetan. Eta dirua gastatzen segiko dute. Ez dute zerbitzatuko Europa soziala. Parlamentu berria antisozialagoa izango da. Hori bai, parlamentari bakoitzak, beste hainbat pribilegioz gain, 7.000 euro jasoko ditu hilero. Ez da harritzekoa abstentzioak irabazi izana.

Juan Mari Arregi

Lourdes Auzmendi eta Igor Calzada HPSn

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA osatzen doa. Jakina denez, sailburuorde Ramon Etxezarreta da. Beste bi izendapen egin dira: Lourdes Auzmendi Euskararen Sustapenerako Sailaren zuzendaria izango da eta Igor Calzada Euskararen Koordinaziorako zuzendari.

Eremu mistoan nahi dute

NAFARROAKO GOBERNUAK jakinarazi ditu halako batean 2008ko inkesta soziolinguistikoaren emaitzak. Datuen artean honakoa: eremu ez euskalduneko Galar, Noain, Mañeru, Zirauki, Villatuerta, Artazu, Beraskoain eta Girgillao herrietako biztanleen ia %65ak desio du eremu mistoan sartzera. Nahiak nahi, inongo aldaketarik ez dutela egingo adierazi du Carlos Pérez-Nievas Hezkuntza kontseilariak.

BAHEA

Ramon Etxezarreta Eusko Jaurlaritzako

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak *Berrian*

esanak: “Alderdi sozialistaren fidagaitasun batzuk arrazoizkoak izan daitezke, eta besteak sinboloen kulturaren dauden estereotipoetan oinarritutako uste faltsuak. Uste dut alderdi sozialistak aukera historiko bat duela euskararen mundu horiek etxeko senti dezaten... Eta deskubritu dezan, esker oneko alderdia dela hori, jendeak estimatzen duena”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

**UROLA
JATETXEA**

FERMIN CALBETON, 20 · 20003 DONOSTIA
Telf: 943423424 · Fax: 943 424 424 · urola@restauranteurola.com
www.restauranteurola.com